

# XAKEAREN ERRESUMA

Bazen behin, errege bat peiei gaizki tratatzen ziena. Oso harroputza zen bere 8 peoi, 2 zaldi, 2 alfil, 2 dorre eta erreginarekin. Erregina, oso indartsua da eta segurua denez, ahal da joan nahi duen lekura. Erregeak ere ahal du, baina gutxienez beste zenbait pieza behar izaten ditu bere ondoan aurkariak ez dezan jan. Garrantzitsua izan arren, bakarrik ezin duelako. Erregeak babestuta egon behar du eta.

Behin, erregina etxetik atera zen eta oinez zijoala, ahots bat entzun zuen eta ahotsak esaten zuen:

-Hilda zaude. Kar kar kar!!

Erregina, segituan borrokatzeko prestatu zen eta galdetu zuen:

-Nor da? Atera izkutatuta zauden lekutik!!

Hitz egiten zegoen bitartean, ez zituen pausoak entzuten eta atzetik erregina enteratu gabe, gudari batek erregina hil zuen. Peoitxo bat zen, pieza ahulenetakoa dena xake-taulan.

Ordu batzuk geroago, erregea erreginagatik oso urduri zegoen. Erregea, erreginaren bila joan zen. Badaezbada, erregea armada guztiarekin abiatu zen.

Bat batean, erregina hilda topatu zuen. Armada osoa, oso haserre eta urduri jarri zen eta konturatu gabe beste armada batek segada egin zien. Gauza bat kontatu behar dizuet: etxetik atera baino lehenago gauza grabe bat gertatu zela pentsatu zuenez, erregeak peoiak, peoi espezialetan bihurtu zituen eta gero hau esan zien:

-Lurralde bukaeraraino iristen bazarete,edozein borrokalarietan bihurtu ahalko zarete, baina bakarrik behin ahalko duzue.Orduan ondo aprobetxatu.

Peoiek baietz esan zioten.

Segada hortan, hainbat borrokalaria hil ziren: hiru peoi, dorre bat, bi gudariak eta zaldi bat hil ziren. Nola beste bost peoiak ia lurralde bukaeraraino iritsi ziren, erregea, beste piezekin defendatu zen, ahalik eta gehien.

Azkenean, lurralde bukaeraraino iritsi ziren. Bost peoiak ,bost erreginetan bihurtu ziren eta borrokari buelta eman zioten galtzen zeuden momentuan. Beste armadako borrokalaria guztiak hil zituzten. Erregea ere hil zuten.

Xake mate ematea lortu zuten.

Borroka irabazi eta gero, erregeak, hildak zeuden borrokalariei bizitza eman zien eta bost erreginak peoietan bihurtu ziren berriz.

Erregea, barkamena eskatu zien hain gaizki tratatzeagatik eta beste piezak esan zioten ez zela ezer, barkatzen ziotela. Orduan, erregeak, konpentsatzeko janari eta ur pila eman zien eskerrak emateko.

Eta azkenean, borroka amaitu zenean, pieza guztiak bueltatu ziren kutxa berdinerara. Horrek esan nahi du, inor ez dela beste inor baino garrantzitsuagoa ez bizitzan eta ezta ere xake taulan.Denok berdinak garelako.

**BROLY**

